



**AGINDUA EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDEZ AURRETIK ONARTZEN
BAITA ISTRIPU LARRIETAN GAI ARRISKUTSUAK TARTEKO DIRENEAN
SORTZEN DIREN ARRISKUEI BURUZKO INFORMAZIO-, EBALUAZIO- ETA
KONTROL-ARAUBIDEARI BURUZKO AGINDU-PROIEKTUA**

2021eko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez, organo horrek berak erabaki zuen Istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuei buruzko informazio-, ebaluazio- eta kontrol-araubideari buruzko agindu-proiektua egiteko prozedura hastea, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen arabera eta bete beharreko gainerako legeen arabera egitea.

Nahitaezko izapide guztiak egin dira hasiera-agindu horretan xedatutakoarekin bat etorriz, eta, fase honetan, organo honi dagokio proiektua aldez aurretik onartzea, 8/2003 Legearen 7. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, non ezartzen baita «xedapen orokorren egitasmoak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko die, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik».

Azaldutakoa kontuan hartuta eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuei buruzko informazio-, ebaluazio- eta kontrol-araubideari buruzko agindu-proiektua aldez aurretik onartzea. Eranskinean dago lehen zirriborroa.

Bigarrena.– Agintzea arau hori egiteko prozedurak aurrera egin dezala nahitaez bete behar diren izapideei jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, sinatu den datan.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburua

MARIA ARANZASU TAPIA OTAEGUI.

Borrador 0.0 (2020/03/25)





ERANSKINA

1.0 Zirriborroa

AGINDUA, 2021eko XXXXaren XX(e)koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuei buruzko informazioari, ebaluazioari eta kontrolari buruzkoa.

Istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeari dagokion legeriak aldaketa garrantzitsuak izan ditu azken urteetan. 2012an eman zen 2012/18 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2012ko uztailaren 4koa, istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeari buruzkoa, zeinaren bidez aldatu eta, gerora, indargabetu baitzen 96/82 (EE) Zuzentaraua. 2015ean, berriz, Europako arau horren barne-antolamendu juridikorako transposizioa onartu zen, irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren bidez –istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzekoa–.

Aipatutako arauak guztiz operatibo direla bermatzeko, beharrezkoa da arlo horretako EAEko antolamendu juridikoa eguneratzea. Horixe da, hain zuzen, agindu hau onartzeko arrazoi nagusia; beronen bidez, agindu hauek ordezkatu nahi dira: 2006ko ekainaren 15eko Agindua, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, substantzia arriskutsuek esku hartzen duten istripu larrien prebentzioarekin zerikusia duten dokumentazioari, ebaluazioari eta ikuskatzei buruzkoa, eta 2007ko martxoaren 14koa, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, zeinaren bidez aurrekoa aldatu baitzen.

Autonomia-erkidegoko araubidea berriztatzeko lan hori dela eta, zenbait alderdiren araubidean hobekuntzak egiteko aukera hauteman da, bai eta alderdi jakin batzuk era sakonagoan garatzekoa ere, xedapen horiek ukitzen dituzten interesen mesedetan.

Berrikuntza azpimarragarrien artean, aipatzekoa da segurtasun-txostenen ebaluazioaren antolaketa berria. Izan ere, aurrerantzean, administrazioaren eskumena izango da hori, ezertan eragotzi gabe, hark egoki baderitzo, eragile kolaboratzaileei laguntza edo aholkularitza eskatzea.

Agindu honek atal hauek ditu: 28 artikulua, lau kapitulu, xedapen gehigarri bakarra, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bakarra eta azken xedapen bakarra. Indarrean den antolamendu juridikoak organo honi ematen dizkion eskumenak erabiliz onartzen da. Otsailaren 20ko 34/2001 Dekretuak, istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurrien gain eskumena daukaten autonomia-erkidegoko organoak zehazten dituenak, gaur egun Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila denari, industria-segurtasunean eskumena duen zuzendaritzaren bitartez, arau honetan zehazten diren alderdi ugariz arduratzeko eskumena ematen dio.

Xedapen honek aurrea hartu nahi die eta mugak jarri nahi dizkie industria-jarduketatik edo industria-instalazio, - ekipamendu edo -produktuen erabilera, funtzionamendu eta mantentze-lanetatik eratorritako arriskuei, eta babesa eskaini nahi du pertsoneri edo ondasunei kalteak edo galerak eragin diezazkieketen istripuen aurka. Ondorioz, xedapen hau industria-segurtasuneko araubidetzat har daiteke. Alde horretatik, azaroaren 12ko 8/2004 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriakoak, 11. artikuluan adierazten du «istripu larriei aurrea hartzea» dela industria-segurtasunaren arloko sektore-araubideetako eremu propioetako bat. Aipatutako 8/2004 Legearekiko zubi-lana egiten du industria-segurtasunari buruzko 81/2020 Dekretuak; horregatik, horren erregelamendu-garapena egiten du agindu honek.



Horrenbestez, Jaurlaritzaren Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 61. artikuluan, azaroaren 12ko 8/2004 Legearen azken xedapenetako bigarrenean eta istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriei dagokienez Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunak zehazten dituen otsailaren 20ko 34/2001 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea hau da: istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dituen irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuak ezarritako esparruaren barruan, arlo horrekin lotutako informazioaren, ebaluazioaren eta kontrolaren araubidea zehaztea.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Agindu hau aplikatuko zaie Euskal Autonomia Erkidegoan dauden eta 840/2015 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan sartzen diren establezimenduei.

3. artikulua.– Definizioak.

Beste zerbait berariaz xedatzen ez den bitartean, agindu honetan aurreikusitakoari dagokionez, 840/2015 Errege Dekretuan zehaztutako definizioei jarraituko zaie.

4. artikulua.– Bitarteko elektronikoen bidezko harremana.

1.– Agindu honetan xedatutakoaren arabera gauzatzen de edozein prozeduratan interesa dutenak behartuta daude organo eskudunarekin baliabide elektronikoen bidez izatera harremana.

2.– Segurtasun industrialeko administrazioak, efikazia- eta efizientzia-printzipioen arabera, zenbait dokumentu eta datu aurkezteko araubide bereziak ezar ditzake. Dokumentu eta datu horiek ez dira aurkeztutzat hartuko beste bide batzuetatik aurkezten badira.

5. artikulua.– Organo eskuduna.

Agindu honetan aurreikusitakoari jarraituz bideratzen diren prozedurak hasteko eta ebazteko organo eskuduna hau izango da: industria-segurtasunaren arloan eskumena duen sailaren organo periferikoa, lurraldearen arabera dagokiona. Horri dagokionez, establezimendua dagoen lurraldeko organo periferikoak izango du eskumena.



Organo horrek eskumena izango du, halaber, honako hauetaz arduratzeko: jakinarazpenez, horien eguneraketez eta agindu honetan xedatutakoaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan aurkeztu beharko litzatekeen beste edozein dokumentazio edo informazioz.

II. KAPITULUA

Informazioa

6. artikulua.– Xedapen orokorrak.

- 1.– Agindu hau aplikatuz organo eskudunari jakinarazten zaion informazioak egiazkoa, osoa eta argia izan beharko du, eta une oro eguneratuta egon beharko du.
- 2.– Industrialariak beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte istripu larrien prebentzioari buruzko dokumentazioa xedatzeko eta egokitzeko, establezimenduek izan ditzaketen aldaketen arabera.

7. artikulua.– Establezimendu berriak.

- 1.– Agindu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, establezimendu berritzat hartuko dira agindu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera abian jartzen edo eraikitzen direnak.

Establezimendu operatiboak ere berritzat joko dira, baldin eta arau-aldaketen edo instalazio edo jardueren aldaketen ondorioz agindu honen aplikazio-eremuan sartzen badira.

- 2.– Establezimendua ustiatzen edo eraikitzen hasi aurreko bederatzi hilabeteetan, industrialariak organo eskudunari bidali beharko dio 840/2015 Errege Dekretuaren 7. artikuluan aurreikusitako edukia duen jakinarazpena.

Aurreko apartatuaren bigarren paragrafoaren arabera berritzat jotzen diren establezimenduen kasuan, bederatzi hilabeteko epe hori zehazteko, kontuan hartuko da establezimendu horiek agindu honen aplikazio-eremuan sartu diren data.

Apartatu honetan aurreikusitako jakinarazpena agindu honen I. eranskinean jasotako eremuan egin beharko da.

- 3.– Aurreko paragrafoan aipatutako jakinarazpenarekin batera, agindu honen 11. eta 12. artikuluetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

- 4.– Aipatutako dokumentazioaz gain, industrialariak jarduera zehazki noiz hasiko den jakiten duenean, jakinarazpen bat bidali beharko dio organo eskudunari, data hori adierazteko.

- 5.– Establezimenduak ustiatzen edo eraikitzen hasi eta hurrengo sei hilabeteen barruan, industrialariak kontrol-erakunde baten ikuskapen-txosten bat aurkeztu beharko diote organo eskudunari, agindu honen IV. kapituluan adierazitakoarekin bat etorritz.

1. apartatuaren bigarren paragrafoaren arabera berritzat jotzen diren establezimenduei dagokienez, sei hilabeteko epe hori zehazteko, kontuan hartuko da establezimendu horiek 840/2015 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan sartu diren data, betiere indarreko araudiak bestelako epe edo zenbaketa bat ezartzen ez badu.

**8. artikulua.– Aldaketa garrantzitsuak.**

1.– Aldaketa garrantzitsutzat hartuko dira 840/2015 Errege Dekretuaren 11.3 artikuluan jasotako kasuak, bai eta honako hauek ere:

a) Aldaketak kokapenean edo inguruaren baldintzetan, establezimenduan istripu bat gertatuz gero horren eraginak aldatuko lituzketenak.

b) Aldaketak oinplanoko antolamenduan edo biltegiatze-motan.

2.– Aldaketa garrantzitsuak egiten diren kasuetan, agindu honen I. eranskinari jarraituz, jakinarazpen eguneratua aurkeztu beharko diote industrialariak organo eskudunari.

3.– Aldaketa garrantzitsuak egiten diren kasuetan, industrialariak inguruabar berrietara eguneratu beharko ditu honako puntu hauek, dagokionean dagokiona: istripu larriak prebenitzeko politika eta segurtasuna kudeatzeko sistema, segurtasun-txostena eta barneko larrialdietarako edo autobabeserako plana; gainera, organo eskudunari aurkeztu beharko dio aldaketaren ondoriozko eragin-mailari dagokion dokumentazioa, 11. eta 12. artikuluetan aurreikusitakoari jarraituz.

Apartatu honetan zehaztutakoa betez jakinarazpenarekin batera aurkezten den dokumentazioan, aldatu diren alderdiak jaso beharko dira, eta argi eta garbi adierazi beharko da aurkeztutako dokumentazioaren zein alderdiri eragiten dioten aldaketek.

4.– Behin aldaketa operatibo egonda, kontrol-erakunde batek ikuskatuko du establezimendua, alderdi hauek egiaztatzeko: aldaketa egin dela, establezimenduan sortu duen eragina zer mailatakoa den eta horren arabera araudiaren aldetik aplikatzekoak diren neurriak betetzen direla.

5.– Aldaketa garrantzitsuak establezimenduan sortu duen eragin-mailaren arabera, honako epe hauei begiratu zaie artikulua honetan zehaztutako dokumentazioa aurkezteko:

a) Aldaketa garrantzitsuak ez badu establezimenduan eragin-mailaren gutxitze bat ekartzen, jakinarazpen eguneratua eta aurreko apartatuan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dira aldaketa egitea aurreikusten den eguna baino bederatzi hilabete lehenago, gutxienez. Aldaketa egin eta gehienez ere sei hilabeteko epean aurkeztu beharko da kontrol-erakundearen txostena.

b) Aldaketa garrantzitsuak establezimenduan eragin-maila gutxitzea badakar, jakinarazpen eguneratua eta aurreko apartatuan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dira aldaketa aurreikusten den eguna baino hilabete lehenago, gutxienez. Aldaketa egin, eta hilabete gabe aurkeztu beharko da kontrol-erakundearen txostena.

6.– Aipatutako dokumentazioaz gain, aldatutako zatia edo zatiak zein noiztik aurrera erabili ahalko diren jakiten duenean, industrialariak jakinarazpen bat bidali beharko dio organo eskudunari, data hori adierazteko.

9. artikulua.– Aldaketa ez-garrantzitsuak.

1.– Aldaketa ez-garrantzitsutzat hartuko dira 840/2015 Errege Dekretuaren 7.4 artikulua a) eta d) letretan definitutako kasuak, non eta aldaketa garrantzitsuen izaera ez duten.



2.– Industrialariak Administrazioari jakinarazi beharko dizkio establezimenduari eragingo dioten aldaketa ez-garrantzitsuak, aldaketa horiek egingo direla aurreikusten den eguna baino bi hilabete lehenago, gutxienez.

Garrantzitsua ez den aldaketa bat egin dela aurretiaz jakinarazi ondoren, Administrazioak ikusten badu aldaketa hori garrantzitsua izan daitekeela aurreko artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, industrialariari eskatuko dio artikuluko horretan jasotako neurriak betetzeko.

Aurreko paragrafoan adierazitako eskakizuna dagokion ebazpen arrazoituaren bidez formulatu beharko da. Ebazpen horretan zehaztu beharko da eguneratze horrek zer-nolako garrantzia duen istripu posible baten ondorioak aurreikusteko orduan.

3.– Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa ezertan eragotzi gabe, aldaketa ez-garrantzitsuen kasuan industrialariak eguneratu egin beharko du aurkeztutako azken jakinarazpena.

Jakinarazpen hori, gutxienez, aldaketa aurreikusten den eguna baino hilabete lehenago eguneratu beharko da.

4.– Aurreko paragrafoan jasotako kasuetan ez ezik, jakinarazpena eguneratzeko eskatu ahal izango da, eta, hala badagokio, baita aldeztu aurretik aurkeztutako dokumentazioa ere, baldin eta goi-mailako establezimenduek 840/2015 Errege Dekretuaren 7.4.d) artikuluan aurreikusitakoez beste aldaketa batzuk badituzte, organo eskudunaren iritziz hori egitea eskatzen dutenak.

Aurreko paragrafoan adierazitako eskakizuna dagokion ebazpen arrazoituaren bidez formulatu beharko da. Ebazpen horretan zehaztu beharko da eguneratze horrek zer-nolako garrantzia duen istripu posible baten ondorioak aurreikusteko orduan.

5.– Aipatutako dokumentazioaz gain, aldatutako zatia edo zatiak zein noiztik aurrera erabili ahaliko diren jakiten duenean, industrialariak jakinarazpen bat bidali beharko dio organo eskudunari, data hori adierazteko.

10. artikulua.– Establezimendu batek jarduera etetea.

1.– Establezimendu batek jarduera etenez gero, industrialariak Administrazioari jakinarazi beharko dio hori, gutxienez II. eranskinean adierazitako datuak jasotzen dituen jakinarazpen baten bidez.

Honako kasu hauetan erabakiko da establezimendu batek jarduera eten duela:

a) Establezimendu bat behin betiko ixtea edo eraistea.

b) Establezimendua, gerora sortutako arrazoiengatik, agindu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen bada, kausa hauek direla eta: substantzia baten kopuruak gutxitzearen edo 840/2015 Errege Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kategorien multzo berekoak diren substantzia batzuen batura haztatua gutxitzearen ondorioz, edo aplikazio-eremutik kanpo geratzea eragiten duen arau-aldaketa baten ondorioz.

Administrazioan aurkezten den jakinarazpenean, jarduera etetea eragin duen kasua zein den zehaztu beharko da.

2.– Aurreko apartatuan aurreikusitako betebeharra gutxienez jarduera utziko dela aurreikusten den eguna baino hilabete lehenago bete beharko da.



3.– 1. apartatuan aipatutako jakinarazpenaz gain, industrialariak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du Administrazioan, jarduera etetea eragin duen kasua gertatzen denetik hilabeteko epean:

a) Establezimendua behin betiko ixten edo eraisten den kasuetan, istripu larriei buruzko araudia betetzeko arrazoi izango zatekeen arriskua desagertu dela egiaztatzen duten agiriak, bai eta sektore-araubideak eska zezakeen beste edozein agiri ere.

b) Jarduera eteteko arrazoia establezimendua agindu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen den kasuan, kontrol-erakundearen txostena, egiaztatzen duena artikuluko 1. apartatuko b) letran zehazten diren inguruabarrak gertatzen direla, eta, ondorioz, establezimendua agindu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dela. Txosten hori ez da eskatuko, baldin eta araudi-aldaketa baten ondorioz geratzen bada aplikazio-eremutik kanpo.

11. artikulua.– Goi-mailako establezimenduei eskatzen zaien dokumentazioa.

1.– Goi-mailako establezimenduetako industrialariak behartuta daude aurkeztera, jakinarazpenarekin batera, segurtasunari buruzko txosten bat eta barne-larrialdietako plan bat.

2.– Segurtasun-txostenak 840/2015 Errege Dekretuaren 10.1 artikuluko alderdiak bete behar ditu, eta, gutxienez, irailaren 19ko 1196/2003 Errege Dekretuak onartutako babes zibileko oinarritzko gidalerroaren laugarren apartatuan zehazten den informazioa bildu beharko du; oinarritzko gidalerro hori gai arriskutsuak tarteko diren istripu larriak gertatzeko arriskuari aurre egiteko kontrol eta antolamendurako babes zibilari buruzkoa da.

3.– Segurtasun-txosteneko arriskuaren analisi kuantitatiboa egingo da, % 1eko hilgarritasun-atalaseak establezimenduaren mugak gainditzen baditu eta elementu kalteberaren bati eragin badiezaioke. Atalase horrek establezimenduaren mugak gainditzen ez baditu, eta inongo elementu kalteberari eragiten ez badio, industrialariak agirien bidez justifikatu beharko du ez duela behar arriskuen analisi kuantitatiborik.

Apartatu honetan zehaztutakoaren ondorioetarako, elementu kalteberatzat hartuko da indarreko neurrien arabera eta organo eskudunak ematen dituen gidalerroen arabera oso kalteberatzat, kalteberatzat edo kasu berezitzat defini daitekeen hura.

4.– Era berean, arrisku-analisi kuantitatibo bat aurkeztu beharko da organo eskudunak hala eskatzen duenean, betiere behar den moduan motibatutako arrazoiak badaude. Ondorio horietarako, aintzat hartuko dira inguruaren eta prozesuen inguruabar espezifikoak, instalazioenak eta parte hartzen duten gai arriskutsuenak.

Aurreko paragrafoan adierazitako eskakizuna dagokion ebazpen arrazoituaren bidez formulatu beharko da. Ebazpen horretan zehaztu beharko da arrisku-analisi kuantitatiboa aurkezteak zer-nolako garrantzia duen istripu posible baten ondorioak aurreikusteko orduan.

5.– Barne-larrialdietako plana ondoko xedapenetan, edo ordezkotetan, zehazten denari jarraituz egingo da:

a) substantzia arriskutsuekin lotutako istripu larrien arriskua kontrolatzeko eta planifikatzeko babes zibileko oinarritzko gidalerroaren, zeina irailaren 19ko 1196/2003 Errege Dekretuan onartu baitzen, hirugarren apartatua;



b) 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, larrialdi-egoerei aurre egiteko jarduera, zentro edo establezimendu zehatz batzuei eskatuko zaizkien autobabeserako beharrak arautzen dituen (otsailaren 12ko 21/2019 Dekretuak egindako aldaketaren arabera); eta

c) 393/2007 Errege Dekretua, martxoaren 23koa, larrialdi-egoerak sor ditzaketen jarduerak egiten dituzten zentroen, establezimenduen edota bulegoen autobabeserako oinarritzko araua onartzen duena.

12. artikulua.– Behe-mailako establezimenduei eskatzen zaien dokumentazioa.

1.– Behe-mailako establezimenduetako industrialariak behartuta daude aurkeztera, gai arriskutsuen jakinarazpenarekin batera, barne-larrialdietako plan bat.

2.– Barne-larrialdietako plana ondoko xedapenetan, edo ordezkotetan, zehazten denari jarraituz egingo da:

a) substantzia arriskutsuekin lotutako istripu larrien arriskua kontrolatzeko eta planifikatzeko babes zibileko oinarritzko gidalerroaren, zeina irailaren 19ko 1196/2003 Errege Dekretuan onartu baitzen, hirugarren apartatua;

b) 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, larrialdi-egoerei aurre egiteko jarduera, zentro edo establezimendu zehatz batzuei eskatuko zaizkien autobabeserako beharrak arautzen dituen (otsailaren 12ko 21/2019 Dekretuak egindako aldaketaren arabera); eta

c) 393/2007 Errege Dekretua, martxoaren 23koa, larrialdi-egoerak sor ditzaketen jarduerak egiten dituzten zentroen, establezimenduen edota bulegoen autobabeserako oinarritzko araua onartzen duena.

3.– Halaber, behe-mailako establezimenduetako industrialariak 840/2015 Errege Dekretuaren 10.9 artikuluan aipatutako informazioa aurkeztu beharko diote organo eskudunari, hark hala eskatzen duenean, bai eta erregelamendu bidez aurreikusitako beste edozein dokumentu edo informazio ere.

13. artikulua.– Dokumentazioa berrikustea.

1.– Industrialariak dokumentazioa arretaz berrikusi beharko dute, organo eskudunak une oro informazio eguneratua duela ziurtatzeko.

2.– Industrialariak, betiere, agindu honetan, 840/2015 Errege Dekretuan edo sektorean indarrean den gainerako araudian aurreikusitako kasuetan eta maiztasunarekin berrikusi beharko dute dokumentazioa.

3.– Dokumentazioa berrikusi behar denean, industrialariak dokumentuen edizio berriak egin beharko ditu, hartara, egon daitezkeen aldaketak jasota uzteko.

Inguruabarretan eta lehendik zeuden dokumentuetan aldaketarik ez badago, industrialariak administrazioari egiaztatu beharko dio berrikuspena egin duela, eta berrikuspen horretatik ondorioztatu duela ez dela eguneratzeko beharrik.



III. KAPITULUA

Ebaluazioa**14. artikulua.– Ebaluazioaren xedea.**

- 1.– Segurtasun-txostenak 840/2015 Errege Dekretuaren 10.5 artikuluan zehaztutakoaren arabera ebaluatu beharko dira.
- 2.– Segurtasun-txostenez gain, goi-mailako establezimenduen barne-larrialdietako planak edo autobabeseakoak ere ebaluatu beharko dira.

15. artikulua.– Ebaluatu beharrekoak.

Ebaluazioaren irizpenak ondoko alderdiei buruzkoa izan beharko du:

- a) Segurtasun-txostena hauen arabera egin den: 840/2015 Errege Dekretua eta 1196/2003 Errege Dekretuak onartutako gai arriskutsuak tarteko diren istripu larriak gertatzeko arriskuari aurre egiteko kontrol eta antolamendurako babes zibilari buruzko oinarrizko gidalerroa.
- b) Barne-larrialdietako plana agindu honen 11.5 artikuluan zehaztutakoaren arabera egin den.

16. artikulua.– Ebaluatzeko prozedura.

- 1.– Ebaluatzeko prozedura organo eskudunaren erabakiz hasiko da. Aldez aurretik, interesdunak honako hauek aurkeztu beharko ditu: agindu honen 14. artikuluan zehazten den dokumentazioa eta zerga-legeriaren arabera dagokion tasa ordaindu duela egiaztatzen duen agiria. Prozeduran sartuko da agindu honetan ezarritakoaren arabera aurkeztutako jakinarazpena.
- 2.– Ebaluazioaren emaitza ebaluazio-irizpen batean jasoko da, agindu honen 17. artikuluan ezarritakoa betez.
- 3.– Ebaluazio-prozedura organo eskudunaren ebazpenaren bidez –agindu honen 18. artikuluan ezarritakoaren arabera emana– amaituko da.
- 4.– Sei hilabetekoa izango da artikulua honetan zehaztutakoari jarraituz hasitako prozeduren ebazpenerako gehienezko epea; behin horiek igarota, iraungita geratuko dira prozedurak.

Ebaluazio-prozedura iraungitzeak organo eskuduna ez du salbuetsiko dagokion ebaluazio-irizpena emateko betebeharretik; era berean, ez du eragotziko, artikulua honen 3. apartatuan aipatzen den ebazpena emateko helburuarekin bakarrik, beste prozedura bat hastea.

- 5.– Ebaluazio-prozedurak bideratzerakoan, industrialariaren betebeharra izango da organo eskudunarekin era aktiboan lankidetzan aritzea.

17. artikulua.– Ebaluazio-irizpena.

- 1.– Ebaluazio-irizpena nahitaezko txostena izango da, eta ebaluazioaren emaitza jasoko du; azken horrek industrialariak aurkeztutako segurtasun-txostenaren gaineko adostasuna edo adostasun eza adieraziko du, bai eta aurkeztutako gainerako dokumentazioaren gainekoa ere.



Txostenaren ebaluazioa egiterakoan, III. eranskinean definitutako prozedura eta gutxienezko edukiak hartuko dira kontuan.

2.– Ebaluazio-irizpenari ezingo zaio errekurtsorik jarri; horrek ez du ezertan eragozten, bide administratibo eta judizialaren arabera, emandako ebazpenaren aurkako errekurtsioak jartzea, hurrengo artikuluan zehazten denari jarraituz.

18. artikulua.– Ebaluazio-prozeduren ebazpena.

1.– Behin ebaluazio-irizpena emanda, organo eskudunak ebazpena emango du, zeinak 840/2015 Errege Dekretuaren 10.6 artikuluan zehaztutako ekintzetako bat adierazi beharko baitu.

2.– Ebaluazio-prozeduren ebazpenaren aurka, legearen arabera dagozkion errekurtsioak jarri ahal izango dira.

19. artikulua.– Lankidetzak agente laguntzaileekin.

Kapitulu honetan azaldutako ebaluazioa egiteko, segurtasun-arloko organo eskudunak, egoki baderitza, substantzia arriskutsuek esku hartzen duten istripu larrien prebentzioaren arloko segurtasun-txostenak ebaluatzeko agente laguntzaileen laguntza edo aholkularitza eskatu ahal izango du.

IV. KAPITULUA

SEGURTASUNAREN KONTROLA

20. artikulua.– Modalitateak.

1.– Agindu honen aplikazio-eremuko establezimenduen kontrola bide hauetatik egingo da: aldizkako ikuskapenen bidez, administrazioaren ikuskapenen bidez eta auditorien bidez.

2.– Kontrolaren bidez, egiaztatuko da establezimenduak agindu honetan bertan, 840/2015 Errege Dekretuan eta substantzia arriskutsuak tarteko diren istripu larriak aurrea hartzearen inguruko xedapenetan ezartzen diren baldintzetara eta betekizunetara egokitzen direla.

3.– Artikulu honen lehenengo apartatuan zehaztutako kontrol-modalitateen bitartez ez ezik, establezimenduak kontrolatu ahal izango dira bete beharreko araubidean aurreikusten den beste edozein modalitateen bitartez.

4.– Establezimenduen kontrola zehaztu eta gauzatu beharko da, kasu bakoitzean, establezimendu motaren arabera eta hari aplikatzekoak zaizkion segurtasun-baldintza espezifikoaren arabera.

5.– Artikulu honetan zehazten diren kontrol-modalitateak ulertu behar dira ezertan eragotzi gabe agindu honen aplikazio-eremuko establezimenduei dagokien sektore-araubideak aurreikus ditzakeen gainerako kontrol-modalitateak.

21. artikulua.– Aldizkako ikuskapenak.



1.– Establezimenduen aldizkako ikuskapena bakoitzari dagokion sektorearen eremuan gaitutako kontrol-erakundeek egingo dute, betiere bete beharreko sektore-araubidean zehaztutakoaren arabera.

2.– Aldizkako ikuskapenak egiteko, organo eskudunak onartutako ikuskapen-planetan eta -programetan zehaztutakoari jarraituko zaio.

22. artikulua.- Ikuskapen-planak.

Industria-segurtasunaren arloan eskumena duen zuzendaritzak ikuskapen-planak onartuko ditu, eta, horien bidez, agindu honen aplikazio-eremuan sartzen diren establezimenduen kontrola egiteko baldintza orokorrak zehaztuko dira.

Baldintza horiek zehazteko, 840/2015 Errege Dekretuaren 21.3 artikuluan jasotako alderdiak hartuko dira kontuan.

23. artikulua.– Aldizkako ikuskapenen programak.

1.– Industria-segurtasuneko organo eskudunak aldizkako ikuskapen-programak egingo ditu; ikuskapen horiek egiteko baldintza partikularrak programa horien bidez zehaztuko dira, kasuan kasuko establezimendu motaren arabera.

2.– Aldizkako ikuskapen-programak egiterakoan, kontuan hartuko da ondoz ondoko bi ikuskapenen arteko denbora-tartea ezin izango dela urtebetetik gorakoa izan goi-mailako establezimenduentzat, eta hiru urtetik gorakoa behe-mailakoentzat. Establezimendu berriei dagokienez, aldizkako lehen ikuskapena egiteko denbora-tartea agindu honen 7.5 artikuluan aurreikusitako ikuskapena egiten den egunetik hasita zenbatuko da.

3.– Aurreko paragrafoan aurreikusitako denbora-tarteak ez dira beteko, baldin eta establezimendu jakin baten ikuskapen-programaren oinarria establezimendu horretan istripu larria izateko arriskuen balorazio sistematikoa bada.

Balorazio sistematiko hori, gutxienez, 840/2015 Errege Dekretuaren 21.4 artikuluko hirugarren paragrafoko irizpideetan oinarrituko da, eta, hala badagokio, establezimendu horietan beste arlo edo arau-eremu bateko jarraibideak aplikatuz egindako ikuskapenen emaitzan.

24. artikulua.– Aldizka ikuskatu eta berrikusi beharrekoak.

Aldizkako ikuskapenetan, bereziki, ondoko alderdiak egiaztatu beharko dira:

a) Istripu larriei aurrea hartzeko beharrezkoak diren neurriak betetzen direla, honako hauekin lotuta daudenak:

a.1) Istripu larriei aurrea hartzeko politika.

a.2) Segurtasuna kudeatzeko sistemaren eta autobabeserako planaren ezarpena.

a.3) Gai arriskutsuen jakinarazpena.



- a.4) Arlo honekin zerikusia duten ekipamenduen eta segurtasun-elementuen egoera.
- a.5) Arlo honi aplikatu beharreko kudeaketa moduak eta antolaketa.
- a.6) Langileentzako prestakuntza-programak, istripua gertatuko balitz hartu beharreko babes-neurriei buruz eta jokaerari buruz.
- b) Agiri bidez egiaztatu beharko da betetzen direla establezimenduari dagozkion gai arriskutsuen biltegiarzte-instalazioek bete beharreko industria-segurtasuneko araubideak.

25. artikulua.– Administrazioaren ikuskapenak.

Industria-segurtasuneko organo eskudunak establezimenduak kontrolatu ahal izango ditu, ikuskapenen bidez, ondoko kasu eta baldintzetan: industria-segurtasunari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuaren 21.2 artikuluan zehaztutakoak, eta bete beharrekoak diren gainerako arauen xedapenen arabera.

26. artikulua.– Auditoria-planak.

1.– Aurreko artikuluetan zehaztutakoa ezertan eragotzi gabe, industria-segurtasuneko organo eskudunak eskualde-mailako auditoria-planak onartu ahal izango ditu, establezimendu bakoitzari egokia zaion eran; plan horien edukiek kontuan hartu beharko dute 840/2015 Errege Dekretuaren 21.3 artikuluan zehaztutakoa, eta une bakoitzeko beharretara egokitu beharko dira.

2.– Industria-segurtasuneko organo eskudunak zainduko du auditoria-planak aldizka berrikusten direla, eta, beharrezkoa denean, eguneratu egiten direla.

27. artikulua.– Aldizkako ikuskapenen emaitza.

1.– Ikuskapenen emaitza akta batean jasoko da; bertan, detektatu diren ez-betetzeen zerrenda eta horien kalifikazioa agertuko dira, bai eta hartu beharreko neurrien zerrenda ere.

2.– Kontrol-erakundeak industrialariari eta organo eskudunari helarazi beharko die ikuskapen-akta, hamabost eguneko epean, horretarako egokia den bidea erabiliz. Baldin eta Administrazioak dokumentazioa aurkezteko bide bereziak ezarriak baditu, bide horien bidez helarazi beharko zaio akta aipatutako organoari.

3.– Ikuskapen-akta helaraztearekin bat, ez-betetzerik detektatu bada, horien zerrenda ere bidali beharko da, bai eta organo eskudunaren aurrean ez-betetzeak zuzendu direla egiaztatzeko emandako epeak ere.

4.– Ez-betetzeak zuzentzeko emandako epe horiek zuzenketari ekiteko zorrozkari behar direnak izan beharko dute. Ezarritako epeak ezingo dira izan hauek baino luzeagoak:

- a) Ez-betetze oso larrietan, zuzenketak berehalakoa izan beharko du. Organo eskudunari ahal bezain laster jakinarazi behar zaio: gehienez hogeita lau orduan.
- b) Ez-betetze larrietan, ezarritako epea ezingo da sei hilabete baino luzeagoa izan.

c) Ez-betetze arinetan, hurrengo aldizkako ikuskapena baino lehen egin beharko da zuzenketa.

5.– Behin akatsak zuzenduta, industrialariak akatsak zuzendu dituelako ziurtagiria helaraziko dio ikuskapena egin zuen kontrol-erakundeari; horrek aplikazio informatikoan txertatuko du, eta ikuskapenean sortutako dokumentazioarekin batera gordeko du, araudian ezarrita dagoen denbora-tarterako.

Ez-betetze larriak detektatzen badira, akatsen zuzenketa-ziurtagiria jaso eta gero, kasuan kasuko kontrol-erakundeak sei hilabete gabe in situ egiaztatuko du ez-betetze horiek zuzendu direla.

28. artikulua.– Ez-betetzeen kalifikazioa.

1.– Establezimenduen aldizkako ikuskarpenetan detektatzen diren ez-betetzeen kalifikazioa haiei atxiki behar zaion arrisku-mailaren arabera izango da.

2.– Aurreko paragrafoan xedatutakoa dela-eta, ez-betetzeak sailkatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Ez-betetze oso larriak: presazko zuzenketa eskatzen dutenak, gerta litezkeen ondorioengatik. Honako kasu hauek hartuko dira ez-betetze oso larritzat:

a.1.– Ez-betetze larritzat hartuak izan arren, pertsonengan, ondasunetan eta ingurumenean berehalako arriskua sortzen dutenak.

a.2.– Zuzendu gabeko ez-betetze larriek irautearen emaitza direnak. Ondorio horietarako, ez-betetze oso larritzat hartuko dira hiru zuzentze-eperekin ondoren zuzendu gabe jarraitzen duten ez-betetze larriak.

a.3.– Ikuskaritako itemen ez-betetze larri orokorra. Alde horretatik, jardute-tipologia bakoitzerako zehaztu behar da ez-betetze oso larria osatzen duen anomalia larrien portzentajea.

b) Ez-betetze larriak: establezimenduaren segurtasun-baldintzak okertzeaz gain, ez-betetze oso larriek baino garrantzi txikiagoko istripu larriak izateko arriskua ere badakartenak. Honako kasu hauek hartuko dira ez-betetze larritzat:

b.1.– Industria-segurtasunari buruzko legeriak eta araudiak eskatzen dituen agiriak ez izatea, batez ere ez-betetze horrek nahitaezko aldizkako kontrolei dagokienez, pertsonengan, ondasunetan eta ingurumenean arrisku edo kalte larria eragiten badu –batez ere, ekipamendu eta instalazioei dagokienez, istripu larriak eragiten dituzten arriskuen analisisian identifikatutako egoeretan parte hartzen dutenak–.

b.2.– Instalazioak martxan jartzea administrazio-baimena eskuratu gabe edo dagokion jakinarazpena aurkeztu gabe, zer dagokion.

b.3.– Agintaritza eskudunari ez aurkeztea jakinarazpena, segurtasun-txostena, autobabeserako plana edo istripu larriari buruzko araudiak eskatzen duen beste edozein dokumentu; baita ere, haietan jasotako funtsezko informazioa faltsua izatea edo ez ematea.

b.4.– Indarrean dagoen araudiaren arabera istripu larriari aurrea hartzeko politika bat landua ez izatea, edo segurtasuna kudeatzeko sistemaren elementuren bat garatua eta ezarria ez izatea.

b.5.– Indarrean dagoen araudian ezarritako aldizkako ikuskarpenak eginak ez izatea.



b.6.– Establezimenduan istripu larriei aurea hartzeko eta horiek gutxitzeko hartutako neurriak nabarmen eskatzat hartzen badira, behar den justifikazioaren bidez, edo horietan detektatzen diren zenbait akats kalteak sortzeko modukoak badira –pertsonengan, ondasunetan eta ingurumenean–, betiere kasuan kasuko egiaztatze-zerrendako akatsen sailkapenaren arabera.

b.7.– Ikuskatzaileei ikuskapen-jarduera eragozte, sarrera eragotzita edo eskatzen duten informazioa emateari uko eginda.

c) Ez-betetze arinak: istripu larria sortzeko arrisku nabarmena sortzen ez dutenak. Ez-betetze arintzat hartuko dira ez-betetze oso larritzat edo larritzat kalifikatzeko modukoak ez diren kasu guztiak.

Xedapen gehigarri bakarra. – Agindu honen eremuko jarraibideak eta gidalerroak

1. Industria-segurtasunaren arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrak beharrezkotzat jotzen dituen jarraibideak onartuko ditu hierarkian haren mende dauden administrazio-organoen jardueran irizpide-uniformetasuna bermatzeko.

2. Industria-segurtasunaren arloan eskumena duen zuzendaritzak jarraibideak, gidak edo jarduteko irizpideak argitaratu ahal izango ditu, agindu honen aplikazio-eremuan sartzen diren izapide eta jarduketa guztietan haren mendeko organoek jarraituko duten interpretazioa ezagutarazteko.

Jarraibide, gida eta jarduera-irizpide horiek Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan argitaratuko dira.

Lehenengo xedapen iragankorra.– Agindu hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurak.

Agindu hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurek hasi ziren egunean indarrean zegoen arautegia bete beharko dute.

Bigarren xedapen iragankorra.– Agindu hau indarrean jarri aurretik hasitako ebaluazioak.

Agindu hau indarrean jartzen den unean segurtasun-txostenaren ebaluazioa, baimendutako erakunde ebaluatzaile batena, lortzeko zain dauden industrialariek hiru hilabeteko epea izango dute ebaluazio hori organo eskudunari helarazteko.

Agindu hau indarrean jartzen den egunetik hasita zenbatuko da hiru hilabeteko epe hori.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Agindu honek arautzen duen arloko xedapen oro indargabeturik geratzen da, aginduan aurreikusten denaren aurkakoa bada, eta, bereziki, bi agindu hauek: 2006ko ekainaren 15eko Agindua, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, substantzia arriskutsuek esku hartzen duten istripu larrien prebentzioarekin zerikusia duten dokumentazioari, ebaluazioari eta



ikuskatzeei buruzkoa, eta 2007ko martxoaren 14koa, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, zeinaren bidez aurrekoa aldatu baitzen.

Azken xedapen bakarra.- Indarrean sartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeit egunera sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko XXXXaren XX(a).

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,

MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

I. ERANSKINA

GAI ARRISKUTSUAK DITUEN INSTALAZIOAREN JAKINARAZPENA

(ISTRIPU LARRIAK GERTATZEKO ARRISKUAREN KONTROLA -840/2015 E.D.aren 7. art.) (SEVESO III Zuzentaraua- 2012/18/UE)

☐ Berria ☐ Aldaketa garrantzitsua ☐ Aldaketa ez-garrantzitsua ☐ Eguneratzea

Establezimenduaren titularraren datuak

Establezimenduaren izena			Ei zk.
Lekua	Helbide osoa:		Tel.: Posta elektronikoa:
Jardueraren arduraduna (Istripua edo gorabeheraren bat izanez gero, esku hartzeko establezimenduko arduraduna)	Izena:	Kargua:	
	Kokapenaren helbide osoa:		Tel.: Posta elektronikoa:
	Harremanetan jartzeko, 24 ordu:		
Egoitza soziala	Helbide osoa:		Tel.: Posta elektronikoa:

Lekuari buruzko datuak

Jarduera			ESJN:
UTM koordinatuak			
Eremua	☐ Industriala ☐ Urbanoa ☐ Landagunea		
Azalera, guztira	Orubeak (m²):	Eraikuntzak (m²):	
Eraikuntza mota	☐ Beste eraikin batzuei atxikia batzuetatik ☐ Bakartua, <500 m-ra beste eraikuntza		
	☐ Beste eraikin batzuei atxikia batzuetatik ☐ Bakartua, >500 m-ra beste eraikuntza		
Inguru hurbila			

Lekuan dagoen langile kop.	- Denera plantillan: - Denera gertaerak eragina izan duen instalazioetan: - Denera txanda bakoitzean: - Gertaerak eragina izan duen instalazioetan, txanda bakoitzean:

Gai arriskutsuak (1) (840/2015 EDaren I. eranskinaren 1. zutabea sailkatuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1272/2008-CLP (EE) Erregelamenduaren arabera)

Gaiaren kategoria (2)				NBE zk.	CAS zk.:	Substantziaren izena (5)	Kantitate maximoa [t] (6)	Ratioa (7)	
Seveso kat. (3)	(4)	Sailkap. CLP	2. zut.					3. zut.	
☐ 1/2 bis orrian jarraitzen du									
Ratioa (8) H sekzioa -osasunerako arriskuak					2. zutabeari buruz:		3. zutabeari buruz:		
P sekzioa -arrisku fisiko-kimikoak					2. zutabeari buruz:		3. zutabeari buruz:		
E sekzioa -ingurumenerako arriskuak					2. zutabeari buruz:		3. zutabeari buruz:		

(1) Izan daitezkeen substantzia eta nahasketa guztien zerrenda (lehengaiak, erdibideko produktuak edo bukatuak, azpi produktuak, hondakinak edo kontrola galtzearen ondorioz sor daitezkeenak), 2. zutabeko atalase-balioen % 2 gainditzen dutenak.

(2) Adierazi errenkada independenteetan gaien arrisku-kategoria guztiak, I. eranskineko 1. zatian adieraziak, bai 1. zatiko substantziak, bai 2. zatian izendatutakoak. Hondakinei dagokienez, 1357/2014 Erregelamenduaren (EE) arabera sailkatuko dira.

(3) I. eranskineko 1. zatiko substantzia generiko bati badagokio, «1» adierazi; 2. zatian izendatuta badago, «2» adierazi.

(4) Substantziaren egoera fisikoa: S: solidoa, L: likidoa, G: gasa, GL: gas likidotua, GC: gas konprimatua, GD: gas disolbatua, GLH: gas likidotu hoztua.

(5) Substantziaren izendapen teknikoa.

(6) Egoerarik okerreanean egon daitezkeen kantitate maximoa, tonatan.

(7) Balio haztatua q_x/Q_x (q_x = substantzia arriskutsuaren kantitate maximoa eta Q_x = substantzia horren atalase-kantitatea, 2. edo 3. zutabea).

(8) I. eranskineko atalase-balioetara iristen ez diren kantitateen batura haztatua: $q_1/Q_1 + q_2/Q_2 + \dots$ (q = substantzia arriskutsuaren kantitate maximoa eta Q = substantzia horren atalase-kantitatea, 2. edo 3. zutabea). Ikus 840/2015 EDaren I. eranskineko 4. oharra.

Prozesu teknologikoen deskripzio laburra (1)

(1) 840/2015 EDak eragiten dien prozesuen deskribapena

Erantsitako dokumentazioa:

- ☐ Enpresaren edo establezimenduaren kokapen-planoa: gutxi gorabeherako eskala, 1:25.000

(1)

- ☐ Kokapen-planoa: gutxi gorabeherako eskala, 1:1.000 – 1:5.000 (2)

- ☐ Lekuaren planoak: gutxi gorabeherako eskala, 1:200

- ☐ Bestelako dokumentazioa:

-

-

-

Oharra: Laukiren batean nahikoa toki ez badago, erabili zenbakitutako orri zuri osagarriak.

(1) Kokapen-planoan, establezimendurako sarbideak eta herriguneak, komunikazio-bideak, ur-korranteak eta baso-eremuak identifikatuko dira, enpresaren edo establezimenduaren lursailen mugatik 2.000 metro baino gutxiagora kokatuta badaude.

(2) Jarduerak eraikin bat baino gehiago hartzen dituztenean, establezimenduaren multzoaren plano bat aurkeztuko da, non biltegia eta jarduera nagusiaren mugetatik 500 metro baino gutxiagora dauden enpresaren beste jarduera batzuk identifikatuko diren.

DEKLARAZIOA:

Aitortzen dut, irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuan aurreikusitako ondorioetarako, orri hauetan ageri diren datuak bat datozela deskribatutako instalaziokoekin.

.....(e)ko..... aren.....(a)

Enpresaren edo establezimenduaren arduraduna

Sinadura:

NAN:

BORRADOR

II. ERANSKINA

JARDUERA ETETEAREN KOMUNIKAZIOA

Establezimendu bat behin betiko ixtea edo eraistea

840/2015 Errege Dekretuaren aplikazio-eremutik kanpo geratzea, gerora sortutako arrazoiengatik

Establezimenduaren titularraren datuak

Establezimenduaren izena		El zk.
Lekua	Helbide osoa:	Tel.: Posta elektronikoa:
Jardueraren arduraduna (Istripua edo gorabeheraren bat izanez gero, esku hartzeko establezimenduko arduraduna)	Izena:	Kargua:
	Kokapenaren helbide osoa:	Tel.: Posta elektronikoa:
	Harremanetan jartzeko, 24 ordu:	
Egoitza soziala	Helbide osoa:	Tel.: Posta elektronikoa:

Lekuari buruzko datuak

Jarduera	ESJN:
UTM koordenatuak	

Jarduera etetea ekarri duten arrazoien deskripzio laburra

--

.....(e)ko..... aren.....(a)

Enpresaren edo establezimenduaren arduraduna

Sinadura:

NAN:

III. ERANSKINA

SEGURTASUN-TXOSTENEN EBALUAZIOA

I. EBALUATZEKO PROZEDURA TEKNIKOAREN FASEAK

Segurtasun-txostena ebaluatzeiko prozedura teknikoak ondoz ondoko bi fasetan egiten da; horietako bakoitzak alderdi hauek hartzen ditu:

A) EBALUAZIO-AURREA

Horren xedea da egiaztatzea industrialariak aurkeztutako dokumentazioak betetzen dituela irailaren 19ko 1196/2003 Errege Dekretuak, zeinak istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko eta planifikatzeko babes zibileko oinarritzko jarraibidea onartzen baitu, ezarritako segurtasun-txosteneko betekizunak, bai eta industria-segurtasunaren arloan eskumena duen sailak ezarririk dituenak ere. Besteak beste, ondoko alderdien analisia biltzen du:

1.– Industrialariak helarazitako dokumentazioa berrikustea:

a) Substantzia arriskutsuak dituen instalazioaren jakinarazpena.

b) Segurtasun-txostena (ST):

b.1) Kanpoko larrialdi-planak egiteko oinarritzko informazioa (OI).

b.2) Istripu larriak prebenitzeko politika (ILPP).

b.3) Segurtasuna kudeatzeko sistema (SKS).

b.4) Arriskuaren analisia (AA).

b.5) Hala badagokio, arriskuaren analisi kuantitatiboa (AAK), edo % 1eko hilgarritasunaren irismena gutxituko duten babes teknologikoen ezarpenari buruzko azterketa, establezimenduaren mugak ez gaitzitzeko helburuarekin ezarriak, edo elementu oso kalteberei (EOK) eta elementu kalteberei (EK) eragin ez diezaien, II. eranskineko sailkapena kontuan hartuta, eta bertan egindako definizioei jarraituta.

c) Barnealdeko larrialdi-plana (BLP) edo autobabes-plana (ABP)

2.– Industrialariak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo ebaluazioa egiteko aukerarik ematen ez badu, industrialariari eskatuko zaio akats hori zuzentzeko edo ebaluazioa egiteko beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa aurkezteko.

3.– Instalazioak bisitatzea.

B) EBALUAZIOA

Behin dokumentazioa osatuta, atal guztien ebaluazioa egingo da.

1.– Istripu larri posibleen egoerak berrikustea.

2.– Ondorioen kalkulua egiaztatzea.

3.– Kalteberatasun-azteketak egiaztatzea, adieraziz hilgarritasunaren % 1ek establezimenduaren mugak gaitzitzen dituenean, ez diela ez elementu oso kalteberei (EOK) ez elementu kalteberei (EK) eragiten.

4. – Istripuen sailkapena egiaztatzea eta plangintza-zonen (IZ eta AZ) eta domino-efektuko (DE) zonen sailkapena egiaztatzea.

5.– Kanpoaldeko larrialdi-planerako (KLP) garrantzitsuak diren egoeren azterketa egiaztatzea.

6.– Eskura dauden prebentzio-, kontrol- eta arintze-sistemak egokiak direla egiaztatzea.

7.– Istripu-egoera berriak proposatzen badira, Administrazioari jakinaraztea, segurtasun-txostena zuzentzeko eska diezaien.

8.– Hala badagokio, arriksuaren analisi kuantitatiboa edo babes teknologikoen ezarpenari buruzko azterlana egiaztatzea, hilgarritasunaren % 1eko irismena murrizteko, ez EOKei ez EKei eragin gabe.

9.– OI, ILPP, SKS eta ABP dokumentuen egokitasuna egiaztatzea.

10.– Ondorioak eta gomendioak.

II. EBALUAZIO-IRIZPENAREN OINARRIZKO EDUKIA

Ebaluazio-irizpenak bat etorri behar du ondoko egiturarekin eta oinarrizko edukiarekin:

A) EBALUAZIOAREN KRONOLOGIA ETA MUGAK

Ebaluazioa egiteko aurrekariak eta arrazoiak adierazi behar dira (establezimendu berria, aldaketa sakona edo aldizkako eguneraketa), bai eta ebaluazio-erakundeak egin dituen ekintzak ere (bisita establezimendura, ebaluazio-aurrea, etab.). Era berean, ebaluatu beharreko dokumentuen zerrenda adieraziko da, eta horien data ere bai.

B) LEKUA, INGURUA ETA PLANTILLA

Aztergai den establezimenduaren kokapena zehatz-mehatz adieraziko da, bai eta bertaraino daramaten bideak ere. Era berean, instalazioan dagoen jendea zehaztuko da, lan-txanden arabera, eta inguruaren baldintza meteorologikoak aurkeztuko dira, iturria adieraziz (tokia eta urtea).

C) INSTALAZIOEN ETA SUBSTANTZIEN DESKRIPZIO LABURRA

Aztergai diren instalazioen deskripzioa egingo da, eta sailkatutako substantziak adieraziko dira, titularraren jakinarazpenari jarraituz.

D) ISTRIPU LARRI POSIBLEEN EGOERAK

Enpresaren eta erakunde ebaluatzailearen kalkulu-oinarria aurkeztuko da, baita enpresak eta ebaluatzaileak proposatzen dituzten egoerak ere.

E) ERAGINEN ETA ONDORIOEN KALKULUA

Aurreko apartatuan planteatzen diren egoerei dagozkien istripu posibleen kalkuluak egingo dira, zona hauen kalkulua barne: alertakoak (AZ), interbentziokoak (IZ), % 1eko hilgarritasunekoa eta domino-efektukoak.

F) ERAGIN ETA ONDORIOEN KALKULUARI BURUZKO KONKLUSIOAK

G) KANPOALDEKO LARRIALDI-PLANERAKO ESANGURATSUAK DIREN EGOERAK

H) PREBENTZIO-, KONTROL- ETA ARINTZE-NEURRIAK

Establezimenduko prebentzio-, kontrol- eta arintze-neurrien analisiaren emaitza.

I) IRIZPENA: KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Azterlanaren konklusioak eta ebaluatzailearen gomendioak adieraziko dira. Gomendioak zenbakitu egingo dira, aurrerantzean egingo diren eguneratzeei begira.

Irizpena dokumentazioaren eguneratze bati buruzko ebaluazioari badagokio, aurrekoarekin konparatuta egindako aldaketak adierazi behar dira, bai eta aurreko dokumentazioaren ebaluazioan egindako gomendioak bete diren ere.

ORDEN de ... de ... de 2021, de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, de información, evaluación y control de los riesgos inherentes a los accidentes graves en los que intervengan sustancias peligrosas.

La legislación en materia de control riesgos inherentes a los accidentes graves en los que intervengan sustancias peligrosas ha sufrido importantes cambios en los últimos años. La Directiva 2012/18/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 4 de julio de 2012, relativa al control de los riesgos inherentes a los accidentes graves en los que intervengan sustancias peligrosas y por la que se modifica y ulteriormente deroga la Directiva 96/82/CE fue objeto de trasposición al ordenamiento jurídico interno a través del Real Decreto 840/2015, de 21 de septiembre, por el que se aprueban medidas de control de los riesgos inherentes a los accidentes graves en los que intervengan sustancias peligrosas.

Para garantizar la plena operatividad de las citadas normas, se hace necesario actualizar el ordenamiento jurídico vasco en la materia. Tal es, en efecto, la principal razón por la que se aprueba la presente Orden, que aspirará así a sustituir a la Orden de 15 de junio de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, sobre la documentación, evaluación e inspecciones relacionadas con la prevención de accidentes graves en los que intervienen sustancias peligrosas, y la Orden de 14 de marzo de 2007, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se modificó esta última.

En esta operación de renovación de la normativa autonómica, se ha advertido la oportunidad de acometer mejoras en la regulación de determinados aspectos y de someter a un más profundo desarrollo determinados extremos en beneficio de los intereses afectados por estas disposiciones.

